

AZALPENA:

Modu integralean eta jasangarritasunez turismo alorrari heltzea oinarrizko erronka da eredu turistikoa "berriro asmatzeko". Aipatu eredu turistikoaren aurrekari historikoak, zalantzarik gabe, Donostian kokatzen dira. Donostiak turismoa lantzeko modu edo era berriei heldu behar die eta hori idiosinkrasian oinarriturik egin behar du; turismotik bizi izan den hiri baten ikuspegitik.

Horretarako, turismoa jarduera garrantzitsu bilakatu behar du eta jasangarritasun irizpideak hartu behar ditu. Alorra modernizatzeko irizpideak honako hauek izan behar dute, beste batzuen artean: donostiarren lehentasun eta jarduerekin bat datorren turismoa sustatu; prezioen igoera, eremu publikoen okupatzea eta mugikortasun arazoak ekartzen dituen masifikazioa ekidin; kalitatezko turismoa, merkataritza eta ostalaritzaren modernizazioa, kultura, kirol eta turismo ekintzen arteko lotura eta turismo gaztea eragiten duten neurriak sustatu.

Bestalde, **estrategia zehatza** izateaz gain, turismoaren **kudeaketa koordinatua** egin behar da hiriaren irudia transmititzean eragin handiagoa lortzeko eta Donostiako **turismo eskaintza saltzean eta erabiltzean optimizazio** handiago lortzeko.

Gainera, garai batean turismo aldetik oso erakargarri izan ziren **leku enblematiko batzuk berrasmatu** egin behar dira (Urgul, Akuarioa, Igeldo...).


Azkenik, eskaera turistikoa **ez egonkortzeko** nahiak ekintza zehatz batzuk (Kongresuak, batzarrak...) eta merkatu batzuk (Frantzia...) sustatzera garamatza.

HELBURUAK: A-1 helburuan du, bereziki, eragina: *Merkataritza, kultura, kirol eta turismo zerbitzuetan Donostia kalitatearen, sormenaren eta berrikuntzaren hiri erreferente bilakatzea.*

DESKRIPZIOA:

Donostiako alor turistikoa modernizatzeko hiru alor ezberdin baina elkarren artean lotura dutenak landu beharko lirake:

- 1.- Eskaintzaren koordinazioa.** Alorreko agenteek behin baino gehiagotan adierazi dute behar hori. Koordinazioari esker irudi bateratu bat eman daiteke merkatu potentzialetan, teknologia berrien erabileraren bitartez (alor horretan erabilera nabaria da) baliabideak errazago eskuratzeko aukera izango genuke. Bestalde, alorrak askotan adierazi du instituzio eta sektore ezberdinetako esfortzuak bateratuko dituen erakunde baten beharra koordinazio horri heltzeko.



2.- Eskaintza sendotzea. Koordinazioa garrantzitsua da, baina leku tradizionalen berrasmatzea eta eskaintza handiagoa sortzea ere beharrezkoa da, batez ere, jarduera nautikoekin loturikoak eta gure gastronomiak nazioartean duen ospea aprobetxatuz:

- Urgul (Hiriko Zentro Historikoa)
- Akuarioa (2. fasea)
- Igeldo
- Kirol portuaren kokapenari buruzko analisia
-

3.- Eskaintzaren kalitatea. Donostiako zerbitzuen berrikuntzarako ahalmena eta kalitatea handitzea ere garrantzitsua izango da turismoa sustatzeko. Merkataritza, ostalaritza, ekimenen antolaketa, garraioa, hiritarren arreta...

Horretarako, kalitatea ebaluatzeko sistemen ezarpena, berrikuntza, proiektu berrien sortzea e.a. sustatzeko neurriak hartu behar dira.

Alor horretako gabeziak ere kontuan hartu beharko dira, **informazio** eskaeratik edo hotelen gaitasunaren analisitik... hasita.